

# ttüpi-ttapa

1995eko ekainak 1 • 159. zenbakia

Elkarrizketa


**Rosa Beltzunegi:**  
**«Psikikoki ongi egoteak zerikusia  
haundia du osasun fisikoarekin»**



**UDAL ETA PARLAMENTURAKO  
HAUTESKUNDEEN EMAITZAK**



Hauxe da  
urte osoan  
telefonoaren  
ondoan eduki  
behar duzun liburua



*Ez galdu denborarik!!*

**SEKULAKO AUKERA**  
KLASIKOAK • MODERNOAK • OHEAK




**OFERTA**  
Mahai zabalgarria  
eta 4 aulki

37.100 Pta.



**OFERTA**  
Mahai zabalgarria  
eta 4 aulki

34.800 Pta.



**SUKALDEAK**

**LOGELAK**

**KOMEDOREAK**

**GAZTEENDAKOAK**

4 erakusketa  
zure esku

**OFERTAK KOLTXOI eta SOMIERRETAN**



## DATUAK

- ❖ *Elizondoko Rosa Beltzunegi psikologoa da.*
- ❖ *Psikoanalisi-an formatua dago eta kontsulta pasatzen du Iruñean.*
- ❖ *Pertsonaren sufrimenduak hitzaren bitartez sendatzea bilatzen du psikoanalisiak. Horixe da psikoanalisi-taren lana.*
- ❖ *Bere ustez, jendeak gaur egun ez dio hainbertze beldurrik psikologo batengana joateari.*
- ❖ *Sintoma sorrarazi duten kausak aztertzerazuzentzen ditu bere saiakerak.*

TESTUA :  
JOSEBA IGARABIDE

Rosa BELTZUNEGI:


# «Psikikoki ongi egoteak zerikusia haundia du osasun fisikoarekin»

## NOR HURBILTZEN AHAL DA PSIKOANALISTA BATENGANA?

Sufrimenduren bat duen guztia. Kontutan izan behar dugu sufrimendua arras zabala dela, eta modu desberdinetan agertzen dela: beldurrak, fobiak, pentsamendu obsesiboak, arazo sexualak, depresioak, larritasunak...

Haurrek ere izaten dituzte sufrimenduak. Hauek arras problema desberdinekin agertzen dira kontsultara: enuresia (ohartu gabe pixa egitea); alopezia (ilea erortzen zaie); beldurrak, eskolan gaizki dabilzanak... Horretaz gain, jateko orduan arazoak dituzten gazte-txoak ere etortzen zaizkigu: batzuk anorexia dute (jateko gogo falta), bertzeak bulimia (gehiegi jaten dute)...

Dena den, psikoanalisia ez da bakarrik sintomak dituztenentzat. Beren buruaz eta bertzeekin duten harremanetaz kezkatuak dauden pertsonentzat ere egokia da. Batzuetan guzi hori sufrimenduari lotua agertzen da, egin nahi den bainan egin beharko ez litzatekeenaren arteko kontradikzioa agertuz. Egoera horrek, argibi-



dea eskatzen dituen kezkak eta zalantzak sortzen ditu. Azken finean, aztertu egin behar da sintomen gibelatik dagoen.

## ZER DESBERDINTASUN DAGO PSIKOANALISIA, PSIKOLOGIA ETA BERTZE TERAPIA BATZUREN ARTEAN?

Psikologiak, psikia-

triai eta osasun mundutik eskaintzen diren terapia desberdinek, pazienteak agertzen dituen sintomak desagertaraztea dute helburu, bainan ez dute beti lortzen sintomak desagertaraztea. Psikoanalisiak, ordea, sintoma sorrarazi duten kausak aztertzerazuzentzen ditu bere saiakerak.

## GIZARTEAREN ETA NORBERAREN ARAZOEN ARTEAN NABARI DA LOTURARIK?

Bai. Gizarte modu

honek arazo izugarriak sortu ditu. Gazteen artean, adibidez, langabezia eta segurtasun falta. Konpetitibidatea dagoenez, elkarren arteko borroka izugarri basatia bihurtu da; gizarteak kontsumismoa bultzatzen duenez, gero eta gauza gehiagoren beharra sortzen du inoiz asetzen ez den gose batentzako, eta indibidualismoa ere bultzatzen duenez, bakar-datea eta elkarren arteko ezin eramana nabarmendu egin dira.

»Psikologiak, pazienteak agertzen dituen sintomak desagertaraztea dute helburu. Psikoanalisiak berriz, sintoma sorrarazi duen kausak aztertzerazuzentzen ditu saiakerak.»



# UDAL ETA PARLAMENTURAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

*Kuadro desberdinetan, aurreko hauteskundeekin konparatuz izan diren aldaketak ikusiko dituzue; herrika, eskualdeka, zena mailan eta alderdi bozkatuenen mailan.*

## UDAL HAUTESKUNDEAK HERRIZ HERRI (95/V/28)

**ARANTZA**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Joxe Ramon AMOROS**  
(Arantzaren Alde)



	1995	1991
AA	4 (315 botu)	-
EA	-	1 (123 botu)
HB	-	3 (227 botu)
PNV	3 (205 botu)	3 (187 botu)

**ARESO**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Martin CABALLERO**  
(Grupo Indep. Areso)



	1995	1991
GIA	4 (122 botu)	5 (153 botu)
HB	3 (87 botu)	2 (69 botu)

**BAZTAN**  
13 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Patxi OIARTZABAL**  
(Eusko Alkartasuna)



	1995	1991
UPN	5 (1616 botu)	6 (2038 botu)
EA	6 (1783 botu)	4 (1440 botu)
HB	1 (492 botu)	2 (627 botu)
PSN	0 (239 botu)	1 (338 botu)
AB	1 (439 botu)	0 (261 botu)

**BERA**  
11 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Manuel IRIARTE**  
(Herrialde)



	1995	1991
HA	6 (906 botu)	5 (810 botu)
EA	3 (552 botu)	4 (578 botu)
HB	2 (403 botu)	2 (391 botu)

**BERTIZARAN.**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Miguel OTEIZA**  
(Agrup. Elec. Bertizarana)



	1995	1991
AEB	4 (189 botu)	4 (208 botu)
EA	3 (164 botu)	3 (139 botu)

**DONAMARIA**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Ricardo SAGASETA**  
(Herriengatik)



	1995	1991
HT	3 (115 botu)	4 (142 botu)
H	4 (169 botu)	-
HB	-	3 (96 botu)

**DOÑEZTEBE**  
9 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Miguel SAN MIGUEL**  
(Eusko Alkartasuna)



	1995	1991
BZ	1 (87 botu)	-
EA	6 (502 botu)	4 (292 botu)
UD	2 (165 botu)	3 (239 botu)
HB	0 (66 botu)	0 (71 botu)
DA	-	2 (172 botu)

**ETXALAR**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Miguel Mari IRIGOIEN**  
(Herri Taldea)



	1995	1991
HT	4 (286 botu)	4 (251 botu)
EA	0 (56 botu)	3 (175 botu)
UPN	3 (176 botu)	-

**IGANTZI**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Juan Jose TXOPERENA**  
(Herri Taldea)



	1995	1991
HT	5,4 (276 botu)	5 (283 botu)
UI	-	2 (159 botu)
PNV	2,3 (154 botu)	-

**ITUREN**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Jose IPARRAGIRRE**  
(Eusko Alkartasuna)




	1995	1991
EA	5 (222 botu)	5 (197 botu)
HB	2 (119 botu)	1 (67 botu)
TB	-	1 (59 botu)

**LEITZA**  
11 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Mikel ILLARREGI**  
(Herri Batasuna)




	1995	1991
HB	4 (653 botu)	4 (552 botu)
EA	4 (594 botu)	4 (568 botu)
UL	3 (585 botu)	3 (552 botu)

**LESACA**  
11 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Jose Luis ETXEGARAI**  
(EAJ-PNV)



	1995	1991
PNV	7 (958 botu)	6 (881 botu)
HB	2 (381 botu)	3 (402 botu)
EA	2 (367 botu)	3 (307 botu)

**SUNBILLA**  
7 HAUTETSI  
Alkategai bozkatuena  
**Jose Ignacio MARIEZKURRENA**  
(Eusko Alkartasuna)



	1995	1991
EA	5 (272 botu)	5 (265 botu)
HB	2 (100 botu)	2 (107 botu)

**HAUTAGAI BAKARREKO UDALAK**

**GOIZUETA** Alkatea: M<sup>o</sup> Pilar UNTXALO  
Herri Batasuna 9 (383 botu)

**EZKURRA** Alkatea: Peio ZESTAU  
Idoia 7 (----- botu)

**URDAZUBI** Alkatea: Francisco IRIBARREN  
Independiente 7 (180 botu)

**ZUBIETA** Alkatea: Benantzio BALEZTENA  
Herri Taldea 7 (135 botu)

**ZUGARRAMURDI** Alkatea: Jesus AGERRE  
Akelarre 7 (84 botu)

**ZERRENDA IREKIAK DITUZTEN HERRIAK**

**ELGORRIAGA** Bostorratz Alkatea: Jose Miguel Galarregi

**ERATSUN** Eusko Alkartasuna Alkatea: Rufino Mariezkurrena

**LEGASA** Eusko Alkartasuna Alkatea: .

**NARBARTE** Eusko Alkartasuna Alkatea: .

**ÖIEREGI** Agrupación Electoral Öieregi Alkatea: .




**ÖITZ** Eusko Alkartasuna Alkatea: Jose Antonio Gragirena

**SALDIAS** Eusko Alkartasuna Alkatea: Juan Jose Otxandorena

**URROTZ** Herriko Elkartasuna Alkatea: Ignacio Urroz

**EZ DUTE UDAL HAUTESKUNDERIK IZAN ARANO eta BEINTZA-LABAIENen**





(\*) Oharra:

• Hauteskunde hauetan EAJ-PNV ez da bere izenarekin aukeratu. Azken emaitza hori, Nafarroako Abertzaleak izeneko koalizioak lortutakoa da.

BAZTANALDEA		
	1995	1991
UPN	1666	2108
EA	1276	1346
CDN	715	-

BORTZIRIAK		
	1995	1991
HB	1138	1223
UPN	877	642
EA	856	1158


  

LEITZALDEA		
	1995	1991
HB	1007	1026
EA	582	638
CDN	427	-


  

MALERREKA		
	1995	1991
EA	1126	1245
CDN	651	-
HB	533	578

## ALDERDIRIK BOZKATUENAK ESKUALDEKA



## ESKUALDE MAILAN ALDERDI BAKOITZAK LORTU DITUEN EMAITZAK



Zentzua	Parteh.	CONVERGENCIA		EA		HB		NA		PSOE		UPN		
		1991	1995	1991	1995	1991	1995	1991	1995	1991	1995	1991	1995	
ARANO	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	
ARANTZA	643	536	-	54	127	76	202	163	172	153	10	26	22	46
ARESO	240	214	-	93	38	12	75	65	7	4	32	2	58	34
BAZTAN	6506	4565	-	611	1304	1248	638	531	27	41	597	349	1977	1623
BEINTZA-LAB.	260	116	-	15	40	16	10	5	4	7	30	10	30	52
BERA	2829	1911	-	310	500	417	416	381	45	53	364	241	289	344
BERTIZARANA	521	395	-	85	129	140	33	42	10	5	72	67	85	52
DONAMARIA	304	283	-	46	69	92	66	42	27	8	40	19	28	60
DONEZTEBE	962	840	-	181	304	318	83	80	31	25	132	53	172	136
ELGORRIAGA	162	107	-	23	27	18	33	32	6	0	25	12	17	14
ERATSUN	189	95	-	14	64	58	21	7	3	0	9	4	8	5
ETXALAR	706	525	-	53	143	66	133	142	15	13	55	27	79	182
EZKURRA	224	111	-	39	49	12	32	16	3	4	22	22	46	12
GOIZUETA	860	-	-	47	123	130	407	314	4	3	15	10	24	20
IGANTZI	510	439	-	74	89	51	93	80	61	70	93	40	72	95
ITUREN	387	341	-	23	175	159	89	106	0	0	19	14	38	30
LEITZA	-	1876	-	287	477	440	544	628	11	11	165	81	414	349
LESAKA	2325	1666	-	187	299	246	379	372	532	492	141	104	180	210
OITZ	152	93	-	10	64	43	32	24	1	0	3	1	7	7
SALDIAS	131	96	-	16	45	39	22	21	7	3	9	3	2	12
SUNBILLA	566	409	-	62	202	176	90	77	0	0	52	29	57	49
URDAZUBI	325	216	-	78	33	27	17	20	0	1	43	14	92	8
URROTZ	170	108	-	23	29	18	16	17	6	1	5	5	49	36
ZUBIETA	305	170	-	14	48	37	51	64	11	4	26	16	26	17
ZUGARRAMURDI	212	119	-	26	9	1	23	24	12	5	24	14	39	35

(\*) Oharra:

• Goian dagoen koadroan, NAren zutabeen, 1991ko datuak EAJ-PNVk lortutako emaitzak dira.



EGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.000 ALE

REGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXeko PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

**zendaria:** Joxemanuel Iri-  
en. **Publizitatea:** Miren Kar-  
le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor  
ozena, Joxemanuel Irigoien.  
**ministrazioa:** Amaia Goia.  
**redakzio taldea:** Pello Ape-  
txea, Juainas Paul, Kristina  
an, Bittori Telletxea.  
**riemaileak:** Joseba Azpiroz,  
teban Arozena, Juana Mari  
izar, Ainhoa Mutuberria, Iban  
asi, Txema Aldabe, Pello  
kegia, Txema Urroz, Patxi  
kandorena, Daniel Martirena,  
bel Maia, Josune Etxebeste,  
blo Mendiburu, Joseba  
rabide, Alizia Olaizola, Margari  
kenike, Koro Irazoki, Mixel  
rendiain, Jacqueline, Elixabet  
rria, Garbiñe Maiz, Oskar  
operena, Alberto Sansiñena,  
llo Apezetxea, Aitor Arozena,  
stina Boan. **Kolaboratzaileak:**  
INE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel  
zunartea, Joxe Javier Etxe-  
rria, Arantxa Zabala...

**rimategia:** Gertu (Oñati).

**ti-ttapak** ez du bere gain har-  
en derrigorrez, aldizkarian adie-  
titako erranen eta eritzien eran-  
kizunik.

**akunde Laguntzaileak:** Bera,  
itza, Goizueta, Areso, Baztan,  
dazubi, Zugarramurdi eta  
arako udalak, Bortzirietako  
askara Mankomunitatea,  
alerrekako Zerbitzu Mankomu-  
atea...

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Ikasten segitu: bai edo ez?

#### Ikastera animatuko nuke, etorkizuna gazteon esku baitago



Amagoia SUSPERREGI  
Enpresaritza ikaslea

Ikasten eta lanean ari naiz aldi berean, eta datorren ikasturtean ere ikasten segitzeko asmoa dut. Ikastea eta bidenabar formazioa edukitzea pertsona orontzat hagitx garrantzitsua bada ere, nere ustez, benetako formazioa lan eginez eta praktikan lortzen da. Unibertsitatean ikasgaiak hagitx modu teorikoan ikasten ditugu, eta gero lanean hasten garenean, errealtitatea desberdina dela ikusten dugu. Guzi hau, unibertsitatea gizariteak dituen beharretara ongi egokitzen ez delako gertatzen da, enpresak eskatzen duena eta unibertsitateak irakasten duena, aunitan, ez dago batera orekatua. Erran beharra dut gaur egungo irakaskuntza sistemarekin nahiko dezepzionatua nagoela, ez baitu gazteengan izpiritu kritikorik sortzen eta dagoen sistema bermatzera bultzatzen gaitu. Dena den, gazte guztiak ikastera animatzen ditut, etorkizuna gure eskuetan dago eta.

#### Norberak nabaritu behar du ikasten segitzeko balio duen



Santi BELARRA  
Ikasle ohi eta langilea

Duela urte bat institutua uztea erabaki nuen. Gaur egun erabaki hartaz damutua ote nagoen? Ez dakit bada. Alde batetik bai, eta bertetik ez. Momentu hartan, beharbada arrazoi bat baino gehiago banituen horretarako; batetik aspertua egotea eta bertetik diru nahia. Dena den, ikastetik uztekoan dabilenak, berak hartu behar du erabakia. Utzi baino lehen ahal dena egin eta... Beti ere, eskolan ikasten denak balio du geroko. Nik neure buruarekin halaxe ikusten dut, zerbaiterako balio didala, logika aldetik batez ere. Gaur egun zaila da jakiten titulu batek norainoko garrantzia duen, baina beti lagundu egiten du. Hori seguro. Norbait kezka horrekin baldin badago, ikasten segitu bai edo ez, zera aholkatuko nioke: balio baldin badu, segitzeko ikasten. Zeren, nabaritu egin behar du balio duen edo ez. Bada tenorea hori jakiteko. Dena den, beti bada ikasten segitzeko denbora, eta batez ere azken aldi hontan aukera hori aztertzen ari naiz ni.

#### Ez du merezi ikasten segitzeak ez baldin baduzu deus ateriko



Mire n OPOKA  
Lekarozen ikasle

Ez dut ikastensegitzeko asmorik. Izan ere, ez naiz inoiz ongi moldatu ikasketetan, eta ikastea bera ere, ez dut gustokoa. Beran ikasten nuenean, ikasgai guztiak ongi xamar gainditu eta aprobaten nituen. Orduan ez zegoen hainbertze gauza berri ikasteko orain hementzen Lekarozen dagoen bezala. Hasiera hasieratik amak erran zidan ikasketetan gaizki ibiliko banintz, hauxe izanen zela ikasten ibiliko nintzen azkeneko urtea, ez baitu merezi ikasten segitzeak ez baldin baduzu deus ateriko. Eta nik ez diot amari kontrakorik erranen, izan ere, arrazoi guztiak baitu horretan.



Aldizkari honek Nafarroako gobernuaren laguntza jaso du



## BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

121 errepede nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak





*Ikasten segitu:  
bai edo ez?*

**Maribeltxa  
UNANUA**

Doinua: Aita izana

*Eskuartearen izango banu erabakitzeko aukera erabaki hau hartuko nuke eta gustora gainera. Ikasturtearen beteko nuke ikaslearen papera lortu ezkerre gainera lana eginez uda aldera besta egiteko diru pixka bat ekarriz sakelera.*

*Ezberdina da kasu guztitan jendearen erantzuna bainan helburua guztietan da noski zoriontasuna. Batzuk ez dute damu izaten liburu artean jarduna beste batzuentzat liburu hitza aldiz da ezezaguna nolabait denek ziurtatua nahi dugu etorkizuna.*

### **Eusko Alkartasunari**

TTIPI-TTAPAREN 157. zenbakian, bigarren orrialdean, zuen propaganda idatzian ARKUPEAK elkartearen izena aipatzen duzuela ikusteak harridura eta ezezikotasuna sortu zigun.

Hori dela ta zera adiera nahi dizuegu:

1.- ARKUPEAK elkartearen politika iritzi guziak errespetatzea eta, era berean, politikan zuzenki ez sartzea eta alderdi desberdinekin ez nahastea izan dela hasiera batean hartu genuen erabakietako bat, eta etorkizunean ere, horrela jarraitzeko asmotan gaude.

2.- Gure elkartearen laguntza ematearen aurkako botoa agertu zuen alderdiak noizbait zonaldeko udalbatzarren batean; orain gu zuen propagandan agertzeak ez du inolako zentzurik.

3.- ARKUPEAK elkartearen prest egongo da beti edozein erakunde, udal edo alderdiarekin elkar lanean aritzeko, batez ere, adineko jendeak dituen arazoei aurre egiteko, baina beti, baikoitzari dagokion errespetoarekin.

ARKUPEAK

ELKARTEKO ARDURADUNAK

FELIPE GANBOA-MARTIN LEGARRA

### **Bertizko Partzuergo Turistikoko Administrazio Kontseiluari**

Bertizko Partzuergoko Administrazio Kontseiluak, 1995eko apirilaren 4an egindako bileran, aktan azaltzen den bezala, eta Zubietako ordezkariak eskatu ondotik, apirilaren 25eko bileran jarriko zela Batzar Orokorrerako eguna erabaki zuen.

Apirilaren 25eko bileran, Batzar Orokorrerako deialdia ez egitea erabaki zen, honek suposatzen dituen arazoekin. Hau da:

#### **OHARRA:**

*Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.*

1.— Gerentzia eta Partzuergoaren funtzionamenduari buruz sortu diren gora-beheren argibiderik gabe gelditu direla, orain arte Partzuergoko kideak izan direnak.

2.— Hauteskundeak direla eta, jende berria sar daitekeela Partzuergoan ordezkari bezala. Hauek ez dute jakinen zer gertatu den, erantzunkizunak eskatzeko prozesuari jarraipen bat emateko. Honek oztopo handia suposatzen du Gerentzia zaharrak egin zuena aztertzerakoan.

Aipatutakoa kontutan hartuz, Zubietako Udaltzat, ahobatez, zera erabaki du:

1.— Administrazio kontseiluko Lehendakariaren portaera salatzea, erabakiak aldatzen dituelako bere kabuz, arrazoi garbirik azaldu gabe.

2.— Bertizko Partzuergoko Administrazio Kontseilura eta prentsara bidaltzea akordio hau.

SINATUA:

ZUBIETAKO ALKATEA ETA IDAZKARIA

# ZIZKA OSTATUA


Martxa eta  
mozkor saltsa  
Altzate 28 • BERA



**ttipi-ttapa**  
urte oso batez  
(24 aldizkari)  
Ameriketara  
bidaltzeak  
8.000 Pta. balio du.

Interesatua egon  
ezkerre, deitu  
**948-631188ra**





Egunkaria 95-V-16

«Besta ederrak egiten genituen orduan. Orain gazteak berandu etortzen direla erraten da, baina gure garaian ere horrela ibiltzen ginen».

**Antonio Irazoki**  
Beratarra  
Egunkaria 95-V-16

«Nik sufritu dudana torturatzailerei beraiei ere ez diet opa».

**Xotero Etxandi**  
Baztandarra  
Egunkaria 95-V-25

◆ **Irratia edo telebista?**

❖ Biak bere neurrian.

◆ **Kolore bat?**

❖ Mendikoak, udazkenean.

◆ **Bizio bat?**

❖ Agerikoa ala gordea.

◆ **Bakazioak, urruti edo hurbil?**

❖ Hurbilakoak urrutikoak tartekatuz.

◆ **Janaririk gustokoena?**

❖ Aunitz, baina bat erratekoatan espagettiak.

◆ **Ikusi dunen azken pelikula?**

❖ 'Balas sobre Broadway' Woody Allen-ena.

◆ **Euskara batua edo euskalkiak?**

❖ Biak beharrezkoak eta ahal izanez gero, tokian tokikoak.

◆ **Bi kirol, bat praktikatzeko eta bertze bat ikusteko?**

❖ Zaldiz ibili eta patinai artistikoa.

◆ **Zer ez henioke barkatuko lagun bati?**

❖ Desleialtasuna.

◆ **Zer nahiago dun, maitatu edo maitemindurik egon?**

❖ Maite dudanean maitemindurik nago eta maitemidurik banago maite dut, bata bertzearekin lotua dago.

◆ **Denbora librean, leitu edo pasiatu?**

❖ Leitu leitu!!

◆ **Mutil batengan zertan erreparatzen dun lehenbiziko?**

❖ Begietan eta ahoan.

◆ **Mutil perfektorik ba ote da?**

❖ Ez, eta eskerrik.

◆ **Bizi honetako nahi bat?**

❖ Euskal Herri osoa euskaraz aritzea eta neure buruarekin beti bakean izatea.



**Josebe ALDABE**  
Langarrako kidea eta  
IKAko irakaslea.



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak Bestetako nahiz dantzarako ezpatinak salgai*  
Eztegara 19 • ☎ 63 02 40 BERA

*Errekalde ostatua*

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA



**ANSONEA**  
JATETXEA

*Kontsultatu menu bereziak*

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • BERA



**Bera**

## Alzateko bestak, ekainaren 9tik 11ra

‘III. Alzateko Milia’ larunbat arratsean laisterkatuko da

KRISTINA BOAN

Ekainaren 9, 10 eta 11n ospatuko dira aurtengo Alzateko bestak.

Ortziralean hasiko dira musika kontzertu batekin, Puy eta Zizka ostatuan izanen dena. Ofizialki larunbat arratsalde z emanen zaie hasiera, altxaferrua eta buruhandi eta kankailuak 6etan ateriko baitira Zizkuitz txarangaren doinuekin. Arratseko 9etan ‘III. Alzateko Milia’ korrituko da. Gau partean, 10etatik 12etara dantzaldia izanen da Alzateko plazan eta ondotik, txarangak karrrika alaituko du.

Igandean bazkari herrikoia izanen da Alzateko karrikan. 7etan Gure Txokoako haur dantzariak arituko dia Alzateko plazan. Bestak gaueko 10ak aldera akautuko dira suzko zezen eta Zizkuitz txarangaren partehartzearekin.



Hirurehun mendigoizale euskaldunek hartu zuten parte Berako II. mendi Itzulian, gehienak Nafarroa, Lapurdi eta Gipuzkoatik etorriak zirelarik. Eguraldiak ere lagundu zuen egun horretan

Artxiboa

### Juan Karlos Garro Espainiako Itzuliko lehen maillot horia

Espainiako I. Mendi Bizikletako Itzulian parte hartzen ari da. Nafarroako ordezkari bakarra da eta Jokin Mujikarekin batera euskaldun bakarrentariko.

Lehenengo etapatik erakutsi du lehiatzea eta irabaztera joaki dela, Madrileko lehenbiziko etapen elastikoa

horia jantzi eta bigarren etapa ere irabazi baititu.

Bederatzi egunetako iraupena izanen du itzuli honek eta egun luze horietan Garrok zeregiteko gai den erakutsi beharko du. Momentuz, Espainiako Irekian sailkapeneko bigarren postua berea du.



*ttipi-flash*

### ‘Hiru Errege mahaira’

Ekainaren 4an Hiru Errege Mahaira jonen dira Agerra Mendi taldekoak. Interesatuak deitu gaueko 9etatik 10etara 630362ra. Joan-etorriko txartelak zera balio du: helduak 1.500 Pta., haur eta sozioak 1.000 Pta.

### Lore-jokoen

antolaketan burubelari dabilta herriko kultur elkarteak. Ospakizunak ekainaren 17an eta 18an izanen dira eta abuztuan zehar ere Antoine D'Abbadie, 1895 Lore-jokoen sustatzaileari buruzko erakusketa izanen da Kultur Etxean.

**GOYA**

JOSTAILUAK  
JANTZIAK  
OPARIAK  
ERREMINTAK

Alzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

**OKANE**

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



**KIROLAK ZELA**

Alzate 6, ☎ 63 05 98  
BERA



**ZALAIN**  
J A T E T X E A

EGUNEKO MENUA FTA KARTA

Zalain Auzoa  
☎ 63 11 06  
BERA

**Boda eta banketeak ematen dira**

**GRUPO**



**ZURICH**

ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63



**Lesaka**

# 'X. Pilotarien Batzarra' herrian izanen da asteburu honetan

Larunbatean pilota partiduak eta igandean omenaldia eskainiko zaie pilota munduko erakunde eta pertsonaiei

**AITOR AROZENA**

Asteburu honetan burutuko da 'X. pilotarien batzarra'. Egitarau zabala izanen du ekitaldi honek. Larunbat goizean haurren arteko pilota partiduak jokatuko dira eta arratsaldean, Beti Gazten argazki erakusketa irekitzeaz gain, afizionatuen arteko pilota partiduak jokatuko dira.

Igande goizean trikitilari eta akordeolarien soinuekin ernatuko gara. 10etan argazki erakusketa arkupean paratuko da eta 11etan Herriko Etxean ongietorria egingen zaie omenduko izanen diren pertsonaiei, horien artean Martzelino Sanjurjo lesakarrari. Meza ondotik dantza saioa izanen da Oningo petrietan. Pilotarien batzarra, berez, Herriko Etxeko pleno aretoan izanen da 1ak aldera. 2,20etan bazkaria izanen dute eta ondotik, omenaldia eskainiko da.



Ortziralean burutzekoa zen Nafarroako eskolarteko bertsolari finala. Ttikietan, lau finalistetatik lau lesakarrak ziren eta haundietan bertze bat. Bertso idatziei dagokienez, ttikien mailan Erika Lagoma suertatu da txapeldun eta Ekhone Etxepeteleku azpitxapeldun

Artxioba

## Santiago Irigoien Azkainen omenduko dute igandean

Santiago Irigoien, Lesakako txistularia igande honetan, ekainak 4, omenduko dute Azkainen, asteburu honetan burutuko diren kultur ekitaldien barnean. 10,30etan meza nagusia izanen da eta eguerdian iza-

nen da berez Santiagori eskainitako omenaldia. Arratsaldeko 5etan dantzaldia izanen da Kornelion moduan, Gerard Luc eta bere orkestaren eskuetik. Herrian ez ezik, inguruan ere aski eza-guna da Santiago.



### ttipi-flash

#### ◆ Txankla

Irain eskolako 8. mailako ikasleek osatutako antzerki taldeak bere emenaldia eskeini zuen maiatzaren 20an frontoian, Patxi Saenz irakaslearen zuzenduta. Ateratako dirua ikasbidaia-rako izanen da.

#### ◆ Musika eskolan

izena emateko epea bukatzeaz dago. Bertan hasi nahi duten sei urtetik goitiko neska-mutikok larunbata izanen dute azken eguna apuntatzeko, beraien ikastetxetan.

#### ◆ Paper biltzea

Ikastolako gurasoek paper biltetan egon den parte-hartzea eskertu dute, hurrengorako papera gordetzen hasteko animatuz bidenabarkoan.

**KOXKILA  
OSTATUA**



Zarandia, 4 - LESAKA

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA  
Tfnoa: 637127  
LESAKA

LORA DENDA  
**TXIRULA**  
Bittira LESAKA  
627542  
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**EROSLE**  
LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena  
zugandik  
hurbilago**

Bittiria, 67 - © 637264



**EKAITZA kafetegia**

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Plaza Berria, 13  
948 - 62 75 47

LESACA

Lagunekin  
elkartzeko  
toki egokia





# Udaberriko Kultur Egunak ekainaren 10, 11 eta 18an

Gasna Feria eta artisauen lanen erakusketa 11n

PELLO ETA ALBERTO

Ekainaren 10, 11 eta 18an ditugu aurten kultur ekitaldiak. Ekainaren 11n, igandean, gasna lehiaketa izanen dugu ikusgai nagusia, Altxata elkartearen eskutik. Horrez gain, artisauen lanen erakusketa eta bertako jatekoen salmenta ere egingen da. Plazan bertan bazkaldu nahi duenak egiten ahalko du. Bertsolariak ere entzun ahal izanen ditugu. Eguna borobiltzeko, arratsaldeko 5ak aldera Kukubiltxo taldeak antzerkia eskeiniko digu plazan bertan.

## Euskal katekesiaren Eguna

Ekainaren 3an bilduko dira Iruñean Na-



Igandez igande eta bestaz besta elizkizunak lagundu eta alaitzen dituen kantari taldea entsaiatzen

Argazkia: PELLO

farroako Euskal Katekesiko haurrak. Urteik urtera haur eta guraso gehiago biltzen duen jai ekitaldia Iruñeko Salestarretan egingen da. Goizeko 10etan hasi eta 9ak aldera atera-

ko da autobusa eta 6,30etan etxeratu.

## Jubilatuek udaberriko besta

Ekainaren 4a aukeratu dute aurten jubilatuek, udaberriko bes-

ta ospatzeko. Hildako sozioak gogoratuz meza, lehenik; dantzarien saioa, ondotik, eta bazkaria. Bazkalondoa luzea izanen da, beti bezala. Arratsaldeko orduetan solasketaldiak

izanen dira nagusi, eta, akordeoiaren soinua lagun, kantu eta dantzarako aukera ere bai.

## Larraburuaren eskurtsioa

Bere bazkide eta laguntzaileentzat antolatuko du Larraburu elkartek autobusez egingen den ibilaldia. Hau xe izanen da bidea: Etxalar, Ezpeleta, Kanbo, Azparne, Mendiondo, Ainhua, Dantxarinea, Elizondo, Bertizko parkea, Etxalar. Bazkaria Amaiurko Mendialde jatetxean Izena ekainaren 11 arte ematen ahal da.

## Bertso afaria

Ortziral honetan, bertso afaria ospatuko da Herriko Ostatuan. Xabier Silveira eta Jon Maia izanen dira bertso kantari.

**XATURETXEA**  
  
**JATETXEA**  
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

**CAPDEQUI**  
MICRO BUS 17 P  
**CAP**  
**24 ORDUKO BUS ZERBITZUA**  
• 17 jarlekuko mikrobusa  
• 55 jarlekuko autobusa  
• Afari, despedida, sagardotegietara joateko  
☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

« **USOA** »  
NEKAZARI KOOPERATIBA  
  
Ganaduarentzat pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
**ETXALAR**

**ZIALDO OSTAUA**  
**LESAKA**

**HERRIKO OSTATUA**  
**Jatetxea**  
*Lagun artean goro-goro egateko leku egokia*  
☎ 635290  
**ETXALAR**

**ALBAITARITZA KLINIKA**  
**ORDUTEGIA**  
9,30etatik Tetara eta Setatik Setara  
Larunbatetan 9,30etatik Tetara  
**Albistur 51, ☎ 627660 LESAKA**



**Igantzi**

# Uda hasiera entretenigarria dugu begi bistan

Biltokik antolatutako pala txapelketa hasteko prest

## OSKAR TXOPERENA

Egun gutti falta da Baratzondoko instalazioak irekitzeko. Ekainaren leian akautzen zen bertako lanak egin nahi zutenek izena emateko zuten epea. Bitartean, aurtengo udan piszinetara sartu ahal izateko ordaindu behar diren diru kopuruak onartu ditu udalak. Uda osorako sarrera 3.500 pezeta gostatoko da 18 urtetik goiti dutenentzat, 2.000 11 urtetik 18ra, 1.000 4 urtetik 8ra eta dohainik ttikientzat. Eguneko sarrera berriz, 300 pezetakoa izanen da helduentzat, 150 11tik 18ra eta 100 pezeta 4 eta 10 urte artean dutenentzat.

Igeriketa eta tenis ikastaroetako izen



Igeriketa ikastarorako ez du inork izenik eman oraindik

Artxiboa

ematea ere zabaldu da, ekainaren 15a arte. Oraindik ez omen du inork izenik eman, beraz, animo.

### Ikasturte bukaera

Eskolako ikasturtea akautzen ari denez,

haurren eguna eta ateraldia antolatu dira ekainarako. 21ean egingen da seguraski urteroko eskurtsioa, eta bileran aipatzen zenez Kaparroso aldera izanen da iaz bezala.

Haurren eguna berriz, 23an egingen da, San Juan bezperan. Jokoak izanen dituzte egun osoan eta Biltokin bazkalduko dute denek. Ilunabarrean, sua presatzeraz.

## Dirulaguntza

1.850.000 pezeta hartu ditu udalak Nafarroako Gobernutik eskolaren teilatua moldatzeko. Momentuz, kanpoko paretak xuritzen ari dira, eta ikasturtea akautu bezain abudo hasiko dira teilatua moldatzen.

## Bentako zubia

Inoiz hasiko ez ote ziren beldur baginen ere, hasi dira Bentako zubia zabaltze lanetan. Egiten ari diren lanak ez du oraingoz, ibilgailuen pasabidea oztopatzen, baina, langileek erran digutenez, hilabetetik bitara egon behrako du itxita zubiak. Bitartean, orain moldatzen ari diren trenbidetik edo Lesakara doaien errepidetik ibili beharko omen dugu.

**LABE ZAR**  
© 631076 • BERA

**SAROBE**  
**okindegia**

**SANDERS Pentsuak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**BOAN**  
**TAILERRA**  
CITROEN Banatzailea

**AUTO BERRIEN**  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
☎ 63 06 23 • BERA



# ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mogleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mogleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurrirra eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberrituak

**ERAKUSKETAK:** Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26  
**SALMENTAK:** Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA





# Ekaitza elkarteak junta berria aukeratu du

Jose Agustin Irigoien izanen da lehendakari berria


## GARBINE ETA ELIXABET

Ekaitza elkarteko zuzendaritza batzorde berria antolatu da azken batzarraren ondotik eta Jose Agustin Irigoien izanen da lehendakari berria. Bertzalde, Belen Mutuberria eta Elena Larralde ordezkatzeko, bi langile berri behar dira. Hauek sukalde lana eta garbiketa egin beharko dute eta baldintza hauek bete behar dituzte: Ekaitza elkarteko sozio izatea edo bertzela, lanerako apunta daiteke, baina sozio egiteko asmoarekin. Garbitasunarengatik hilabetean 9.000 pezeta irabaziko dira, astean bi egunez garbituz; sukaldearengatik orduko 500 pezeta, gehi 100 pezeta otor-

## Maiz II operatu dute

Antton Maiz, orain dela gutti herriak omenalda eskein zion pilotaria maiatzaren 19an operatu zuten Iruñeako Komarkal eritetxean, eskuineko hanketako barizetatik. Nahiz eta operazioa nahiko konplikatu izan, dena ongi atera zen eta larunbaterako etxean zegoen. Dagoeneko, poliki-poliki ibiltzen hasia da Antton.

Artxiboa



du bakoitzean biltzen den lagun bakoitzarengatik. Izen emate-

ko epea ekainaren 9an bukatzen da, horretarako Juanita Larralde,

Xabi Etxague edo Jose Agustin Irigoienari adierazi behar zaie.

## Herri Kirolak

Nafarroako herri kirol txapelketan herriko taldeek lehenbiziko saioa burutu zuten maiatzaren 21ean Etxarri-Aranazen. Kadete mailako mutilak, proba konbinatuan lehenengoak eta sokatiran hirugarrenak gelditu ziren. Infantil mailako neskek berriaz, laugarrenak gelditu ziren proba konbinatuan.

## Kooperatibaren 25. urteurrena

Maiatzaren 13 eta 14an ospatu zen Bortzak Bat kooperatibaren 25. urtemuga. Larunbatean, Amaia Zubiriaren kontzertuan jende franko bildu zen. Biharamonean frontoian herri kirolak izan ziren eta gero Aterpen bazkaria. Bazkarian jende aunitz bildu zen. Bazkalondoan ere, Modesto akordeolariak giro bikaina paratu zuen, jende guzia animatuz.



Tfnoa: (943) 399946 • Faxa: (943) 390748  
Euskadi Etorb. 57 • PASAI SAN PEDRO  
Tfnoa: (948) 634161  
Salbatore karrika, z/g • ARANTZA

- Etxe aintzinaldeko harri eta adreiluaren tratamendua.
- Garbiketa osoa eta ura sartzearen kontrako tratamendua
- Etxe aintzinalde eta barnekaldeen margotzea

## ttipi-ttapa

6.000 harpidedun 20.000 irakurle  
ttipi-ttaparekin zure publizitatea  
zonako sukalde-roko guzitan izanen duzu



Edozein pisu mugitzen dugu  
Pabilioiak muntatzen ditugu

### BULEGOA:

Sebastian de Erratzu, 7 behea • IRUN  
Tfnoa: (943) 61 87 24  
Tfno Mugikorra: 908 - 77 54 57

### GRUAK:

Estación, z/g • IRUN  
Tfno Mugikorra: 908 - 67 85 84

## koxkonta



Ezkontza,  
bataio eta  
bileretarako  
leku egokia

Deitu  
erreserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA



**Sunbilla**

# Bertso afaria ospatu zen Ulibeltzak elkartearen maiatzaren 19an

Lizaso eta Murua famatuekin batera, herriko Jaione eta Alba neska gazteak ere aritu ziren

IXABEL ETA JOSUNE

Maiatzaren 19an, Ulibeltzak elkartearen bertso afaria ospatu zen Iñaki Murua eta Xebastian Lizaso bertsolariekin.

Herriko hirutan hoheitamar bat lagun elkartu ziren afari honetan eta giro ederra paratu zuten bertsolariek bertako jendeari bertsoak botaz. Lizaso eta Muruak deskantso tiki bategin zutenean ez ziren bertsoak ixildu. Baztango bertso eskolan ari diren bi herriko bi neska gazte aritu baitziren bertsoak bota eta bota. Jendeari aunitz gustatu zitzaion saio hau. Neska hauek Alba Fernandez eta Jaione Otxandorena dira. Hagitz etorkizun



Mikrofona eskuetan duela ageri da kantari Alba Fernandez. Bere ondoan Jaione Otxandorena. Lizaso eta Muruaren ustez laister edozein saiotan parte hartzeko moduko bertsolariak dira biak

ona omen dute bertsolaritzaren munduan eta laister beraiekin bertso saio bategiteko modukoak direla zioten Murua eta Lizasok.

## 29,6 milioi Karrika Nagusia moldatzeko

Karrika Nagusia moldatzeko 29,6 milioi pezetako dirulaguntza onartu du Nafarroako Gobernu-

ko Herri Azpiegitura sailak. Bertan eginen den inbertsio osoa 39,4 milioi pezetakoa izanen da. Lau eta zazpi

metro zabalerako kaltetada eginen dute. Eraberean, Ozpide auzoko errepidea ormi-goiztatuko dute.

*ttipi-flash*

### Idazkaritza

Hilabete batez praktikak egiten ari da Herriko Etxeko idazkaritza bulegoan Txus Rekarte gaztea.

### Igerilekua

Badirudi ekainaren 15ean irekiko dutela igerilekua eta oraindik bertan lanean nor arituko den jakiterik ez badago ere, herrikoak izanen direla segurua da.



**GAZTANDEGIA**  
Etxeko Ardi Gazta

**LIZUN**

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
**SUNBILLA**



**SANTAMARIA**  
Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



**TELLETXEA MOBLEAK**

**Eskeintza berezia somier eta koltxoietan**

- 90KO KOLT XOIA 9.500 PZTA
- 135KO BIKOTE KOLT XOIA 12.500 PZTA
- 105KO KOLT XOIA 10.500 PZTA

EGURREZKO LAMINAK DUTEN SOMIERRAK

- 90KOA 5.600 PZTA
- 105KOA 6.400 PZTA
- 135KOA 7.500 PZTA

*Kalitate hoberrera eta  
7 urte arteko garrantia*

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE





**Doneztebe**

# Trikitilari txapelketako kanporaketa hilaren 18an


Bordatxo dantzalelun burutuko da Nafarroako bigarren edizio honetako saioa

TXEMA ETA KARMELO

Inguruko trikitilariak aditzeko aukera ederra izanen dugu trikitiazaleok ekainaren 18an, igande arratsaldean Nafarroako II. txapelketako lehenbiziko kanporaketa ospatuko baita Bordatxo dantzalekuan.

Bigarren kanporaketa Arbizon izanen da ekainaren 24an eta finala, berriz, Iruñean uztailearen 2an.

Txapelketa honetan parte hartuko duen bikote bakoitzak ohiko lau piezak jo beharko ditu, arin-arin, fandango, trikitixa eta porrusalda bana, hain zuzen. Epaimahaikoen, puntuatzeko orduan, trebetasuna, piezaren zailtasuna, dantzarako neurri eta erritmoa, espresioa, panderoa eta soinuaren elkarhartzeta eta ahotsa eta kantua hartuko duten kontutan.



Oteiza auzoko bidea zabaldu eta hobetzeko, bide bazterreko lur-xafila batzuk desjabetuko dira.

TXEMA

## Leitzako errepidea moldatzea eskatu du udalak

Zubietatik Leitzarako bidea arrunt gaizki dagoela eta, Zubietako udalak igorritako mozioa ahobatez onartu du Doneztebe udalak.

Mozio honetan, Zubietako udalak Nafarroako Gobernari bide hau lehenbaitlehen konpontze-

ko eskatzen dio, auto aunitz ibiltzen delako bide horretatik, istripu arriskuak haundituz, baita gastuak ere bertan dauden zulo eta egoera penagarriagatik. Inguruko herrietako udal guzietara ere igorri da mozio hau, plenotan agertu eta onar dezaten.

## Oteiza auzoko...

bidea zabalte eta hobetze lanak zirela eta, jabe ezberdinei egindako desjabetza metro karratuko 2.500 pezetatan ordainduko da. Horrela Mazizior anaiei 217.500 pta ordainduko zaie, Etxegorrikoei 249.475, Etxexurikoei 67.500 eta Patxiku Arregiri 775.850 pezeta.

*ttipi-flash*

- ♦ **Aparan**  
lantegiak egurrezko materiala ikusgai eta salgai edukitzeko lokal bat irekiko du herrian.
- ♦ **Loredenda**  
berria ireki zen maiatzaren hasieran Intzakardi karrikan. 'Belen loreak' da bere izena eta mota guzti-etako loreez gain, erramuak eta ko-roak egiten dituzte bertan.
- ♦ **Kukumiku**  
Langarrak antolatutako Kukumiku lehiaketa hagitz arrakastatsua gertatzen ari da. Joan den larunbatean egin zen bigarren kanporaketa Doneztebeko liburutegian eta finala Legasan izanen da ekainaren 10ean, larunbatean, arratsaldeko 6etan.
- ♦ **Euskara teknikari**  
berria dugu Maleurrekan ekainaren 1etik aitzinera, Jose M<sup>a</sup> Arakama Sakanakoa. Hameka hilabetez postu horretan egon den Paula Kasares Baztanera joan da.

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEN**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

*MariCruz*  
**LENTZERIA**

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

**SALDIASko zerrategia**

**Eraikuntzarako estrukturalak eta enbalajeak**

Zubizarra, © 615108, 615044 SALDIAS



**Malerreka**

## Beintza-Labaienen ere haize errotak jarriko dituzte

Guztira berrogei ezarriko dira Asura eta Uztalakorta inguruan eta urtero hamar bat milioi pezeta hartuko ditu udalak

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaienen haize errotak jartzeko kontratua firmatua dute bertako udalak eta EHN enpresak, eta dagoeneko, bi milioi pezeta hartu ditu Beintza-Labaiengo Herriko Etxeak. Guztira, berrogei haize errota ezarriko dira Asura eta Uztalakorta inguruan. Urtero, 10 bat milioi pezeta kobratuko omen ditu udalak.

### Artxiboak txukuntzeko dirulaguntza

Beintza-Labaien, Urrotz eta Oitzeko udal artxibategiak txukundu eta ordenatzeko di-



Beintza-Labaiengo udalak bi milioi hartu ditu haize errotak jartzeko kontratua sinatzeagatik

Artxiboa

rulaguntza eman du Nafarroako Gobernu-ko Kultura eta Hezkuntza sailak. Hiru herrien

artean, milioi bat terdi inguru hartuko dute, lanen aurrekontu osoaren erdia, hain zu-

zen. Beintza-Labaiengo udal artxibategian dagoeneko hasiak dira lan hauek burutzen.

### Kontseilariak bisitan

Perez Lapazarán, Nafarroako Gobernu-ko Nekazaritza, Abeltzantza eta mendiz sailako kontseilariak Elgorriaga eta Bidasoa Berroarango justako mendiak bisitatu zituen maiatzaren 23an, bertan egindako birlandaketak aztertze-ko. Azken hiru urteotan, birlandaketa eta azpiegitura lanetan 224,5 milioiko inbertsioa eginda Bidasoa Berroaranden eta 32,1 milioi Elgorriagan. Kokoriko mendian 47 milioi izan da inbertsioa.

**Ituren**

## Ekainaren 11n ospatuko da Trinitate Eguna

Jende aunitz espero da Mendaurko basilizian

IBAN ISASI

Hauteskundeen erresaka oraindik gainera edukiko dugun honetan, aspaldiko besta hau, Trinitate eguneko alegia, ekainaren 11n burutuko da.

Urtero urtero bezala, Ituren eta inguruko herrietako jende aunitz erromerian joanen da Mendaurko Trinitate basilizara. Beti bezala, meza nagusiak 10etan eta 11etan izanen dira. Bazkaria urtegi inguruan eginen



Erromeri giroa izanen da aurtengo Trinitate egunean

Artxiboa

da, eguraldi onak laguntzen badu behin-behinean. Bazkarirako izena emateko betiko lekuetara jo behar da lehenbaitlehen.

Arratsaldean, dantzaldia egonen da Iturenko herriko plazan eta goiza Mendaurren pasatu eta eguna azken ordura aprobetxatu nahi duen jende aunitz hurbiltzea espero da. Musika doinuak jarriko dituen taldea Gaubela izanen da.



**ZUBIETA**

**Partzuergoko Administrazio kontseiluko lehendakariaren portaera salatu du udalak**

AINHOA MUTUBERRIA

Udalak, Bertizko Partzuergoko administrazio kontseiluko lehendakariaren portaera salatu du. Erakunde honek, apirilaren 25erako bilera bat deitua zuen eta lehendakariak, bere kabuz ez egitea erabaki zuen, arrazoi garbiak azaldu gabe. Horrenbestez, udalbatzaren ustez, hauteskundeak pasatu arte bilerarik egingo ez denez, "gerentzia eta partzuergoaren funtzionamenduari buruz sortu diren gorabeheren argibiderik gabe gelditu dira".

**Maiatza joan zaigu**

Mota guztietako loreak erabili dira igandetan haurrak ainguruz janzteko, nahiz eta beste urtetan baino ume gutxiago izan (ohitura hau jarraitzeko moduko jendea izaten bada, ongi dago). 21ean, hiru neska-mutikok jaunartzea egin zuten. Eta Iruritako bestak ere pasatu dira. Aldaketa bakarra, hauteskundeen jaleoa izan da. Bi aste propagandarekin, partiduen kontuak entzuten asperatuak, egun bat botua emateko eta lau urte luze haiez nazkatzeko. Orain garrantzitsuena herriko udal da. Talde bakarra izanen da eta lana gogorra izango dela jakinez, animo!

**Behinpin taldeak besta bat ospatuko du larunbat honetan Donezteben**

Malerrekako Behinpin taldearen barranean dagoen zerbitzu batzordeak, Elizondon FOSHZA (familia orientabiderako eta sexu hezike-

tarako zentrua) ireki delako besta bat antolatuko du larunbat honetarako (ekainak 3).

Besta Doneztebeko jubilatuen ostatuan ospatuko da arratsalde-

ko 6etatik aitzinera eta bere helburua, "jendeari informatzea eta honelako zentru bat zonaldera ekartzea lortu dugula ospatzea" izanen da Behinpin tal-

deko kideen erranetan. Bestara ginekologoa etorriko da hitzaldi bat ematera. Denbora berean, trikitalariak eta Amaia Zubiriaren saioa izanen da eta ondotik, bukatzeko "berrendu goxo bat" izanen omen da.

**ERRENTA AITORPENA 1994**



**EZ EMAN BUELTA GEHIAGORIK. ZATOZ CAJA RURAL-era.**

**ERRENTA AITORPENA 1994**

**EGINZAZU AITORPENABIDE ZUZENENETIK**

- Bizkortasuna**  
Itzulketak bizkortu edo ordainketak atzeratzeaz arduratzen gara.
- Aholkularitza**  
Aitorpena egoki egiteko beharrezko informazio guziaz eskeintzen dizugu.
- Erosolasuna**  
Aitzinetik ordua eskatuta atendituko zaitugu harat honatean alferrik ibili beharrik gabe.
- Dohaineko zerbitzua**  
Aitorpena dohainik egin eta tramitatuko dizugu.



**NAFARROA OSOAN 105 BULEGO BAINO GEHIAGO ZURE ZERBITZURA.**



**CAJA RURAL DE NAVARRA**



Goizueta

## Lau urteotako gestioaren berri eman du udalak

111 milioi pezetako inbertsioak egin dira legealdi honetan

ESTEBAN AROZENA

1992-94ko Hirurteko Planean oso esku-zabala ez baldin bazen izan ere Goizueta-ekin Nafarroako Gobernua, ia 111 milioiko inbertsioak egin dira herrian bukatzeaz dagoen legealdi honetan, diruzta honetatik %5,5a bakarrik, 6 milioi, izan delarik udaletxeko kuxetatik ateratakoa.

Lau urteko gestioaren berri emanaz udalak kaleratu duen txostenean ikus daitezke datu hauek beste hainbat gairi buruzko aipamen eta balorapenekin batera. Esate baterako, urbanismoaren atalean lorpenik inportanteena babes ofi-



Juan Miguel Apezetxea herriko preso politikoak hamabortz urte bete ditu kartzelean. Norbaitek idatzi nahi balio hau da bere helbidea: Juan Miguel Apezetxea Arozena; Carcel de Burgos (penal); Apdo. 253

zialeko hemezortzi etxebizitzaren eraikuntzarako egindako gestioa izan omen da, 'Asinco'ko lur eta pa-

bilioien errekupeazioa eta 1986. urtetik onartuta baina geldirik zegoen telebista-errepetidorerako pistaren or-

migoiztatzea ahaztu gabe. Mendiari dagokionean, "Nafarroa osoan eredugarria izan daitekeen proiektu bat"

egiteari ekin omen dio udalak, besteak beste "lanak bizkorrago eta efikazia haundiagoarekin" egin ahal izango delarik bera bukatutakoan. Gure herriko aberastasunik haundiena mendia omen da udalaren ustetan, eta zenbakiak adierazten dutenez horrela da, azken lau urte hauetan ia 79 milioi sartu baitira Herriko Etxean oihan aprobetxamenduari esker. Atal honekin jarraituz esan, 223 hektarea izan direla lehendabiziko entresakan garbitutakoak eta beste 40 landatutakoak, 22 herritarri denbora partzialeko lana eman zaielarik horrela.

Areso

## Kadete mailako taldea sokatiran ari da Jolas Kiroletan

Zazpi neska eta mutiko batek osatzen dute taldea

JUANA M<sup>o</sup> SAIZAR

Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak Jolas Kirok antolatu dituzte. Aresoarrak kadete mailan parte hartuko dute sokatiran. Zazpi neska eta mutil batek osatuko dute taldea. Beste bost herriren kontra ari dira: Ultzama, Arantzeta, Lakuntza A eta B eta Etxarriko Andre Mari. Bidaiarako au-



Arraioa etxea da Aresoko zaharreneta-ko bat, 1712. urtean egina baita. Orain 200 urteko sutean zutik mantendu zen bakarretakoa da.

Artxiboa

tobusa jarri du federazioak. Txapelketa ho-

nek lau asteburu iraungo du.

❖ **Leire Baraibar** Aresoko gaztea Gipuz-

koako txapelkun suertatu da jabalina jaurtiketan. Honek Euskadiko txapelketarako atek ireki dizkio eta han parte hartuko du Tolosako elkarteko ordezkari bezala. Zorionak eta suerte on.

### Lehen jaunartzea

Joan den igandean lehenengo jaunartzeak ospatu ziren eta Naiara, Josu, Javi eta Mikel izan ziren protagonistak.





# Datorren igandean izanen dira jaunartzeak

Urtetik urtera lote eskari gutxiago egiten du jendeak

JOSEBA AZPIROZ

Aurten, zortzi eta bederatzita urte dituzten hogeitazazpi gaztetxok egingen dute jaunartzea. Bestalde, maiatzaren 20an hamasei eta hamazazpi urteko 48 gaztek sendotza egin zuten. Azken hauek, aurretik, urte batez aritu dira prestatzen bost taldetan banaturik.

## Okilerentzat dirulaguntza

Okile ezinduen tailerrak 439.458 pezetako dirulaguntza jasoko du Nafarroako Gizarte Ongizate Institututik, bigarren lauhilabetekoari dagozkiona.

Dirulaguntza hau, funtzionamendu, tailerraren ekipatze eta zerbitzu sozialei dagozkien hainbat aktibitate bultzatzeko erabiliko da. Dena den, Okilekoek gastu zuri-garriak aurkeztu beharko dizkiote institutu horri.



Aurreko larunbatean izan zen Mikelats taldeak antolatutako bideo txapelketara aurkeztutako lanen emanaldia. Ekitaldi hau Zinemari burutu zen.

## Sei milioiko dirulaguntza espaloientzat

Espaloien obra haunditu egin dela eta, 6 milioi pezetako dirulaguntza onar-

tu berri du Nafarroako Gobernuak horretarako. Diru horrekin Leitza-Tolosa erre-

pedeko bidegurutzetik hasi eta Apeztearen etxeen arteko espaloia egingen da.

*ttipi-flash*

### 12.353.853

pezeta bilduko dituzten aurten udalak zirkulazio zergaren birtartez. Gaur egun, motorra duten 1.577 ibilgailu dauzke herrian, 1.268 kotxe, 182 kamioi edo furgoneta, 65 moto eta 31 trailer, zehazki esateko.

### Arte eta Kultura

ekitaldietarako 1.100.000 pezetako dirulaguntza jasoko du udalak, Nafarroako Gobernuko Bianako Printzea erakundetik.

### Lote eskari gutxiago

Aurten bakarrik 48 eskari egin dira surako egurra eskatuz. Beste urteekin konparatuz, nabarmenki gutxiago dira, eta horixe da azken urteotako joera. Ageri denez, gasa laister jartzeko-tan dagoenez, etxe-etako instalakuntzak hortarako ego-kitzen hasiak dira herritarrek eta ez dute egurraren beharrik somatzen, nonbait.

**GAZTELU  
ITURGINTZA**

**KALEFAKZIOA**

Elgoien 32  
Tfnoa: 51 00 86 •  
LEITZA

Zure ingurua klase guztiko inektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo-zgarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.  
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

**BERA**  
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55  
BERA

**BEINTZAKO  
OSTATUA**  
Tfnoa: 45 00 14  
BEINTZA-LABAIEN



**Esker Onak • Urtemugak • Eskelak**

**ttipi-ttapak**

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu. Deitu gure telefonora:

☎ 63 11 88



**Baztan**

# 1.075 milioi pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua

Inbertsioak 600 milioi pezetakoak izanen dira eta Hirugarren mundura %0,7a bideratzea erabaki da

JOSEBA IGARABIDE

Joan den urteko kontuak eta aurtengo aurrekontuak onartu zituen Balleko Etxeak azkeneko udal batzarreran.

Joan den urtekoa 950 milioiko aurrekontua izan zen eta aurtengoa, berriz, 1.075 milioiko sarrera-irteerak izanen dituztela kalkulatu dute.

Aurreikusten den inbertsioa 600 milioi pezetako kopurura ailegatzeko da. EA, HB eta PSOEn botoekin ateratu zen aitzinera, UBK kontra botatu zuelarik.

Union Baztanesa, orokorrean aurrekontuarekin ados bazegoen ere, ikastola eta zaharren egoitzako kontuak aurrekontu orokorraren barnean sartzen zirelako konforme ez zeudela adierazi zuten, eta horregatik eman zuten kontrako botoa. Aipatu behar da, hirugarren mundura aurrekontu horren %0,7ko dirua bideratzea erabaki dela, eta horregatik, aurtengo aurrekontua iazkoa baino zerbait haundiago omen dela.



Zubipunta ostatuak antolatutako mus txapelketan jende andana batek parte hartu zuen. Pello Ospital eta Ramon Garaikoetxea suertatu ziren txapelak, Pello Irigoien eta Patxi Agerre bigarren, Domingo Bidegain eta Jesus M<sup>o</sup> Irigoien hirugarren eta Antonio Inda eta Benito Elizagoien laugarren.

## Ikasturte bukaerako bazkaria ospatuko du igande honetan Baztan ikastolak

Igande honetan, ekainak 4, ospatuko du Baztan ikastolak ikasturte bukaerako bazkaria, ikastolaren sorreraren 25. urterena gogoratzeke egiten ari diren ekitaldien barnean.

Egitaraua, goizeko

10,30etako mezarekin hasiko da. 11,30etan, ikastolako ikasleek dantzatuko dute plazan. Eguerdian, Balleko Etxeak ikastolako ordezkariak eskainitako harrera burutuko da. Ietan karrikapasa izanen da

ikastolaraino. 1,30etan omenaldia eta bazkaria izanen da parkean. Helduek eta haurrek menu bereziak izanen dituzte. Bazkal ondutik ere ez da girorik faltatuko, gaiteroak eta dantzaldia izanen baitira.

## Argazki rallya antolatu zuen Oronoz-Mugairiko Gaztelune elkarteak

Ornoz-Mugairiko Gaztelune elkarteak antolatutako argazki rallyan partizipazio

haundia izan zen. Argazkilariek, guztira 24 argazki ateratu behar zuten Baztan eta

Malerrekan barna.

Gaztelune elkarteak urtebetean 44 bazkide lortu ditu.

*ttipi-flash*

### Orabideako

Antxonekoborda baserria kiskali zuen suak maiatzaren 19ko gauean. Bizilagunak -Joxe Angel akordeolari famatua barne- eta azientak onik aterabaziren ere, etxeko lau hormak bakarrik gelditu ziren zutik.

### Oinarrizko Ongizate zerbitzuak

aurtengo egitaraua garatu ahal izan dezan 2.297.770 pezetako dirulaguntza hartu du udalak Nafarroako Ongizate Institututik.

### Elizondoko igerilekuaren

mantenimendua eta garbiketa eta ostatuko lanak Jose Luis Dussaubat-ek egingen ditu uda honetan 1.100.000 pezetaren truke. Lekarozkoa berriz, Jose Bielaren arduraren izenean da, 800.000 pezetatan.

### Arte eta Kultura

ekitaldietarako 1,7 milioi pezetako laguntza hartu da.

**MENDI  
OSTATUA**

Santiago 25 - © 580313  
ELIZONDO



ERLOJU eta BITXI DENDA

**ARRIETA**

KIROL TROFEOAK

Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO



Santiago 71, © 580166

TALLERES  
**ZALDAIN**  
Toldoen instalazioa

ELIZONDO



**Baztan**

# Berroetako bestak ekainaren 2tik 5era

Ortziral arratseko altxaferoarekin emanen zaio hasiera

PABLO MENDIBURU

**Ekainak 2, ortzilerie:**

8,30etan, Altxaferoak botako dira eta hauekin batera Doneztebeko txistulariek herrian barna itzulia emanen dute. 10etan, Herriko afaria dantzaldia Joxe Angelekin.

**Ekainak 3, larunbata:**

12etan, haurren jokoa. 7,30etan Baztango dantzariak. Gaueko 12,30etatik 4,30etara dantzaldia Equus taldearekin.

**Ekainak 4, igandea:**

12etan meza nagusia txistulariekin eta Baztango koralariekin. 1etan esku pilota partiduak. 6,30etan sokatira eta proba konbinatua. Arratsaldean eta gauetan dantzaldia Equus taldearekin.

**Ekainak 5, astelehena:**

12etan mus txapelketa. 2,30etan zikiro jatea, Nafarroako bertsulariekin. Segidan, dantzaldia Joxe Angelekin eta akitzeko herritarrentzat afaria.



Xotero Etxandi aske utzi zuten maiatzaren 22an eta harrera egin zitzaion Oronoz-Mugairin eta larunbatean ongiatorria Elizondan. Bi milioiko fidantza ordaindu behar izan du.

**Frontonaren inaugurazioa**

Maitzaren 21ean frontoiaren inaugurazioa ospatu zuten Anizen. Goizean, meza ondotik, apezak frontoia bedeinkatu zuten. Baztango pilotariak elkarren arteko partiduak jokatu zituzten eta akitzeko he-

rrri bazkaria egin zuten pilotalekuan.

**Lehen jaunartzeak**

Zigan Jon Magirenak egin zuen lehen jaunartzea maiatzaren 28an eta Almandozko Iban Fernandez eta Maite Sarrateak eginen dute ekainaren 18an.

**Pala partidua**

Azkarate eta Olazabalek Apezetxea eta Jonen aurka jokatu zuten pala partiduak ikusmina sortu zuen eta jende poliki hurbildu zen Anizeko frontoira (oraindik inauguratu gabe zegoenean) maiatzaren 19an jokatu zuten partidua ikustera.

*ttipi-flash*

**1.000**

pezetako dirulaguntza hartuko du udaletik ikasbaldaiara joanen den ikastola eta eskolako 8. mailako ikasle bakoitzak.

**Batzarrea Elizondan**

Jon Frantzesena alkateak deituta batzarrea burutu zen larunbatean Elizondan. Gai nagusiak, besten antolakuntza eta Txokoton erreka gurutzatzeko egin nahi den bidea izan ziren.


**Baztandarren Biltzarren**

gazte sailak mainguru bat antolatu zuen Baztanen aurkezten diren talde politiko guztietako ordezkariak, gazteekiko programa ikasi asmoz. Gazteek hutsune aunitz nabaritzen omen dituzte beraien arazoan inguruan.

**Musika eskolak**

kontzertua eskeini du larunbat honetan Kasinoan, Javier Igoaren zuzendaritzapean.

**LARRALDEA**



**SAGARDOTEGIA**

Asteartetik oriztrala Betatik aitzinerat Larunbata eta festa egunetan zabalik.

045 21 21 • LEKAROZ

ELIZONDO  
Tel. 58 01 55



DONEZTEBE  
Tel. Fax. 45 08 25

ZEURE JAUNARTZE EGUNeko ARGAZKIAK HOBERENAK  
IZATEA NAHI BADUZU ZATUZ FOTO MENARA

FOTO MENAN EGUN NABARMENAK  
AHAZTEZINAK EGITEN DITUGU

PROFESIONALAK GARA  
ETOR ZAITEZ ETA IKUS EZAZU



ESKATU ORDUA



**JATETXEA**

Tfnoa: 580101  
Santiago 1  
ELIZONDO

*Galarza*

**Eskisaroi  
Jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013  
**ELIZONDO**





# Herri hauteskundeak erearoren 11n burutuko dira

Bi talde aurkeztuko dira, Aniotzbeherek zuzentzen duen 'Aintzinka' eta Dutournieren 'Hats berri'

MIXEL ETA JACQUELINE

Datorren Erearoren 11n iragaitekoak dira herri hauteskundeak. Bi zerrenda agertzen dira, bat 'Aintzinka' izenekoa, Jean Aniotzbehere auzapezak zuzentzen duena eta bertzea 'Hats berri' deitua eta Henri Dutournier duelarik buru. Zerrenda hauek ez dira talde politiko baten izenean aurkezten eta idekiak dira.


## Ihalarreko ithurria

Karrikaburu parean dagoen ithurri bat da hau eta aspaldian ez zuen urik atxiki bere sabelean, izkutaturik zegoela sasipean. Berrikitan herriak bezpiztu du eta, zor zitzaien bezala, lehengo itxuran apailatu dute.

## Herri Urrats

Eguraldia lagun, jende ugari ibili zen Sara eta Senperen Herri Urratsen kariatartat. Sarako Urratsal-

**AINTZINKA**



**Jean ANIOTZBEHERE**

**Hautagaiak:** Jacques Antz; Elisabeth Azkarraga; Etienne Barrenetxe; Jean Louis Chaulet; Jose Etxegarai; Jean Michel Gachen; Tito Gorosurreta; Martin Goienetxe; Mattin Goietxe; Patrick Iribarren; Jan Battite Indart; Chantal Lereboure; Michel Libier; Jean Michel Narbarte; Jean Louis Ordoki; Pantxo Pradere; Anita Suhit; Jean Yves Zunda.

**HATS BERRI**



**Henri DUTOURNIER**

**Hautagaiak:** Maritxu Arburua; Pierre Arotzarena; Peio Berrouet; Panpi Berhau; Laurent Elizalde; Manuel Elizalde; Caroline Errandonea; Jean Laurent Etxeberri; Kattin Gerendiain; Pierrot Hirigoien; Beronika Ithurria; Jean Michel Jauregi; Pepito Jorajuria; Jan Battite Laborde; Pantxo Mitxelena; Pantxo Saint-Esteben; Beñat Saint-Martin; Michel Urbistondo.

dea giro ezin hobean iragan zen eta antolatzailerak eskertzen dituzte TTIPI-TTAPAREN bitartez, beren laguntza ekarri duten guziak, bai

lanean arituz, ekitaldietan parte hartuz eta beren soro eta aparkalekuak utzi dituztenak, bereziki Trinketa eta Omordia etxaldekoak.

❖ **Kirolaz bi hitz**  
Urtxintxak eskubaloitza finaletan dugu. Maiatzaren 14an Oloronen jokatu eta xarmanki irabazi zu-

ten, 10 eta 6, 'benjamins' mailako neskek. Emaizta huni esker finalerat heltzen dira, bainan mementoan ez dakigu noren kontra.

**HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA**

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19  
64130 SARA



**MENDIALDE Jatetxea**

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan

AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60



**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305



ARROPA DENDA



**FANTXIKE**  
JAIMU URRIUTIA, 24  
TFNO. 580312  
ELIZONDO

**CERVANTES**  
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia



Urdazubi

## Herriko zenbait etxe moldatzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuko Kultur eta Hezkuntza kontseilariaren aginduz ia 3 milioi pezeta hartuko dituzte

ALIZIA OLAIZOLA

Nafarroako Gobernuko Kultur eta Hezkuntza sailaren aginduz, 2.870.000 pezeta inguru hartuko dituzte herriko zenbait bizilagunek, interes historikoa edo artistikoa duten etxeetan moldaketak egin ahal izateko.

Zehazki errateko, Josefa Organbidek 770.000 pezeta hartuko ditu Monastegiaren alde bateko teilatua eta aintzinaldea moldatzeko. Julia Organbidek 640.000 pezetako laguntza jasoko du



Monastegia moldatzeko laguntzak izanen dira

Artxiboa

Monastegiaren alde bateko aintzinaldea konpontzeko. M<sup>a</sup> Carmen Irazokik 540.000 pezetako dirulaguntza Donpedro-

eneako aintzinaldea margotzeko eta tuberiak aldatzeko. Azkenik, Miguel Loidik, 920.000 pezeta jasoko ditu Etxegoienako palazioko teilatua moldatzeko.

### Bestak umore onean joan dira

Eguraldiak, lehenbiziko egunetan bederen, sobera lagundu ez bazuen ere, giro eta umore ezin hobean joan zaizkigu aurtengo Salbatore bestak. Zerbait aipatzekotan, larunbat eguerdiko zikiro jatean izan zen giro ederra.

Zugaramurdi

## Bordaxuria baserria suak kixkali zuen maiatzaren 12an

Bertan bizi den jendea eta aziendak minik gabe atera baziren ere, etxea arras desegina gelditu da

KORO ETA MARGARI

Seguraski oroituko zarete, maiatzaren bigarren astea eguraldi txarrekoa izan ginuela, sekulako kalernak, erauntsi eta kazkabarrrak. Egun hauetako batetan, larunbata 12ko egusentian, hain zuzen, zimizta bat erori zen Bordaxurian eta su hartu zuen. Goardia Zibilak Urbiako kaskotik ikusi eta etxera hurbilduz, behi eta oilasko guztiak atera zituzten. Suhiltzaileak ere etorri ziren baina



Ikastaro ezberdinetan 50 lagunetik goiti aritu dira

Artxiboa

ez zuten deus egiterik izan. Dena kixkali zen

eta lau paretak zutik gelditu arren, makur-

tuak dira eta ez dute deusetarako balio.

### Ikastaro arrakastatsuak

Akitu dira aurtien arrakasta haundia izan duten ikastaroak. Denetara 50 bat lagun animatu ziren batera edo bertzera, eta orain Urdazubiko besetan afari bat antolatu zuten (maiatzaren 26an). Ikastaro guzietako ikaskideek elkarrekin ospatu zuten besta, denetara hogeita hamabortz bat lagun bilduz. Datorren sasoinerako zer antolatuko duten ere bertan erabaki behar zuten.



**EZKONTZAK**

M<sup>a</sup> Pilar Telletxea Lastiri eta Juan Luis Etxeberria Madariaga, Donamaria eta Arantzakoa, maiatzaren 6an.  
 Jose Antonio Agirre Urtizberea eta Rosa M<sup>a</sup> Otxoteko Irazoki, Hondarribia eta Lesakakoa, apirilaren 30ean.

Juan Carlos Beloki Sesmilo eta Maria Unzurrunzaga Pintor, Donostiakoak Beran, maiatzaren 13an.  
 Celestino Elizondo Iribarren eta Juana M<sup>a</sup> Urrutia Alberro, Lekaroz eta Gartzaingoa, maiatzaren 6an.  
 Miguel Angel Francisco Roldan eta Miren Lourdes Urzelai Mendaraz, San Adrian eta Urretxukoa, Elizondon, maiatzaren 13an.

Luis M<sup>a</sup> Oiaregi Elizegi eta M<sup>a</sup> Lourdes Aleman Sarratea, Elizondo eta Gartzaingoa, maiatzaren 20an.

**JAIOTZAK**

Mikel Moreno Alunda, Berakoa, maiatzaren 10ean.

Jon Santamaria Zamora, Berakoa, maiatzaren 18an.

Lorea Arroabarren Etxeberria, Elizondokoa, maiatzaren 12an.

Anai Diaz Fernandez, Erratzukoa, apirilaren 28an.

Gaizka Jauregi Irisarri, Erratzukoa, maiatzaren 10ean.

Arnatz Olano Marzol, Aresokoa, apirilaren 12an.

**HERIOTZAK**

Modesta Atxa Etxebertz, Doneztebekoa, maiatzaren 18an, 94 urte.

Dominica Olo Erburu, Elizondon, maiatzaren 10ean, 86 urte.

Juana Pozos Vechaseda, Elizondokoa, maiatzaren 11n, 91 urte.

M<sup>a</sup> Luisa Etxeberria Juanikotena, Elizondokoa, maiatzaren 12an, 77 urte.

Martina Urtasun Olaiz, Irurita, maiatzaren 14an, 87 urte.

Alfonso Cebrian Nayayo, Elizondokoa, maiatzaren 23an, 86 urte.

**IKASSOFT**  
GRUPO

- ❖ Zerbitzu informatikoak
- ❖ Formakuntza Informatikorako ikasgela
- ❖ Aholkularitza Fiskala, Laborala eta Kontablea

**ENPRESA ZERBITZUAK**

Señor de Aranzate, 8 Behea • IRUN • Faxe eta Tfnoa: (943) 63 35 91



**ZALDUBI**

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • © 580562  
 IRURITA - BAZTAN

**SUKALDE ETA  
 BAINU MOBLEAK**

*Egoki-ren banatzaile  
 baimendua*





## BEHARREZKO TELEFONOAK



**SOS Nafarroa eta Urgentziak**.....088/061

**Osasun Zentruak**

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe ..... 450300

Lesaka ..... 637428 / 637336

Leitza ..... 510248 / 510573

**Nafarroako Ospitaleak**

Nafarroako Ospitalea .... 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua ..... 246750

Virgen del Camino

Erresidencia ..... 109400

Gurutze Gorria ..... 226404

**Gipuzkoako Ospitaleak**

Irungo ospitalea ..... 614600

Gipuzkoako ospitalea ..... 460299

Erresidencia ..... 453800

**Anbulatorioak**

Irun ..... 630264 / 621106

**Anbulantziak**

Oitz ..... 450242 / 450805

**DYA**

Lesaka

(Larrialdiak) ..... (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) ..... 171717

**FUNERARIA**

Doneztebe ..... 637404

Elizondo ..... 580924

Lesaka ..... 637404

**Suhiltzaileak**

Ornoz-Mugairi ..... 592255

**Garraioak**

Bidasotarra ..... 631150

Baztanesa ..... 580129

Leitzarana ..... 515018

**Aberiak:**

Iberduero ..... 450335 / 450336



'Tapia eta Leturia Band'-ek diska berria ateri berria du. Argazkian dituzue banda hau osatzen dituztenak, hoietatik bi eskualdekoak ditugu. Argazkia Beran aterria da, entsaioak egiten dituzten etxean.

## Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak iaz egindako lana agertu du

Programa orokorrean, 600 pertsona atenditu ziren

Iaz, bi programanagusi garatu zituen aipatu zerbitzuak. Batetik, Programa Orokorra deitzen dena, eta bertzetik, Etxez Etxeko Zerbitzua.

Programa Orokorrean sartzen dira, errate baterako, adintu eta ezinduei eskaintzen zaien laguntza (dirulaguntza eskaerak, pensio eskaerak, balnearioak, ezintasun eskaerak...). Denetara, 600 pertsona atenditu ziren aipatutako sek-

tore hoietakoak eta bertze batzuetakoak.

Etxez etxeko Zerbitzuari dagokionez, Famili Langileek 31 pertsonekin egin zuten lan, batez ere segitu ahal izateko behar zuten gauzetan lagunduz (norbera eta etxearen garbitasunean, otorduk prestatzen,...).

Aipatutakoaz gain, Drogomenpekotasunaren aurkako programa martxan jartzeko, Mankomunitateak lan-gile bat hartu zuen 6

hilabetez, beti ere, Nafarroako Gobernuak ateratako deialdiaren arabera.

### HERRIZ HERRIKO ORDUTEGIA

Astelehenetan, Igantzin (10-11) Tfnoa: 637781 eta Arantzan (11,30-12,30) Tfnoa: 634005; asteartetan Beran (9,30-13) Tfnoa: 635005; asteazkenean Lesakan (10-12,30) Tfnoa: 637061 eta ortzegunean (12-14) Tfnoa: 635036.



ZUBIETA 1931-1936

Errepublikaren eta 1936ko gerra Baztan-Bidasoan

Alonso de los Rios  
Zubieta sarrak

Elkarren artean

## 'Zubieta 1931-1936' liburua Lekarozen aukertuko da

Liburu honen aurkezpena, Lekarozko Institutuan egingen da ekainaren 2an, ortziralara, eguerdiko ordu batetan.

'Zubieta 1931-1936' historia liburu bat da. Bertan Errepublikaren eta 1936ko gerra bizitu zuten eta oraindik bizirik dauden hainbat protagonisten bizipean kontatzen dira. Garai haietan bizitutakoa kontatzen dute Baztan Bidasoaldeko pertsonai hauek, eta kontakizun hoiei esker, egoera historiko hari buruzko lehen mailako testigantza eskaintzen zaigu. Liburuaren egileak ere, Baztan Bidasoaldeko ikasle eta irakasleak ditugu.



## HALCOURIER

GARRAIO URGENTEAK

- PAKETEAk
- DOKUMENTUAk
- NAZIONALA
- NAZIOARTEKOA

- IRUN ⊃ Eguerdiero, arratsaldero ⊃ 350 Pta.
- DONOSTIA ⊃ Arratsaldero ⊃ 450 Pta.
- IRUÑEA ⊃ Goizero ⊃ 450 Pta.

Bulegoa ⊃ Sara Karrika, 4 • 31780 BERA  
☎ 630557 - 631267 - 241516

# Gida 95

## t-tipi-ttapa

Urte osoan  
telefonoaren ondoan  
eduki beharreko liburua



## Baztango II. Itzulia ekainaren 11n burutuko da

Arizkun-Arizkun ibilaldia burutuko da, hogeitamabortz kilometro eginez

Arizkun-Arizkun, 35 kilometroko ibilbidea eginez burutuko da ekainaren 11n, Baztango mendi itzuliaren bigarren edizioa. Ibilbidean, Iñarbegi, Maza, Auza, Elorta, Izpegi, Ubedo, Meaka, Gorramendi, Itzulegi, Amairuko San Miguel Benta, Bozate eta Latadia igaroko dituzte eta antolatzaileen erranetan, zortzi eta hamar ordu artean egiten ahal da.

### LAU URTEZ BAZTANGO MENDIAK EZAGUTU

Baztango mendigoizaleak da aurten ere antolatzailea. Iazkoarekin konparatuz, guztiz ezberdina da ibilbidea, beraien asmoa lau urtez baztango mendi guztiak ezagutzeko baita. "Aurtengoa laburragoa da, baina iazkoa baino gogorragoa" dio David Ramos antolatzaileetako batek.

Itzulian ikusten ahal



### Edozeinek egiteko moduko ibilbidea prestatu dute Baztango mendigoizaleek

MENA  
diren gauzarik aipagarrienak erraterakoan, "Iñarbegiko trikuharrria, Baztango bigarren mendirik altuena den Auza edo, eguraldiak laguntzen badu,

*Iparraldeko kostaldea Gorramenditik ikusteko aukera*" aipatzen ditu Ramosek.

Hau dena kontuan harturik, Baztango mendigoizaleek 300

bat mendigoizalek parte hartzea espero dute, horretarako Euskal Herriko mendi talde guztietara informazioa igorri baitute.

Ibilaldia edozeinek egiteko modukoa da eta jan edatekoak eramaterako orduan, kontuan hartu behar da kontrol guztietako ura, fruta eta yogurtekin batera, Meakan salda, arrautza egosiak eta txistorra banatuko dela.

### IRTEERA UGARI URTEAN ZEHAR

Baztango mendigoizaleek itzuliaren antolatetaz gain, urtero 30-34 irteera egiten dituzte igandetan. Haurrendako ikastaroak ere antolatzen dituzte Elizondoko rokodromoan. Urte bukaeran berri, orientazio irteerak edo diapositiba emanaldiak egiten dituzte. Epe laburrean, Pirineotako trabesia bat eta Belaguara elurretara joateko asmoa dute.

### Bate pronto

#### ❖ Bortzirietako futbito txapelketa

laister hasiko da Lesakan. Beti Gazte elkarteak, Herriko Etxearekin batera antolatutako txapelketa hau kopa sistemaz jokatuko da (kanporaketak) eta 14 urtetik goitiko jokalariei zuzenduko zaie.

#### ❖ Juan Carlos Garro

txirrindulari beratarra bere nagusitasuna erakusten ari da Espainiako I. Mendi bizikleta itzulian. Aurten ospatzen da lehen aldiz itzuli hau eta beraz, ez da sobera erratea, Juan Carlos historiara pasatuko dela, bera izan baita lehen mailot horia. Lehendabiziko bi etapak beretzat izan ziren.



### Elizondotarrak azpitxapeldun

Elizondoko San Francisco Javier ikastetxe publikoko 8. mailako futbito taldea, Nafarroako Jolas Kirolak txapelketan haurren kategorian parte hartu ondoren, txapelketako bigarrenak suertatu dira. Zorionak talde osoari.

Argazkia: MENA

### Laxoa txapelketaren hurrengo partiduak

95-VI-4

#### A Taldea:

Errekuperazioa

#### B Taldea:

Irurita-Erreka (12etan)  
Zubigorri-Oitz B (12etan)  
Atsedena: Oitz A

95-VI-11

#### Finalerdiak

A taldeko lehena B taldeko bigarrenaren aurka.  
B taldeko lehena A taldeko bigarrenaren aurka



# Errandoneak ezin izan zuen eskuz eskuko finala irabazi

Partidu ona jokatu bazuen ere, Ruben Belokik 22-15 irabazi zuen

Inaxio Errandonea Alkaiagako pilotariak ezin izan zuen eskuz eskuko lehen txapela bururatu, maiatzaren 20an Donostiako Atano III pilotalekuan (lehen, Anoeta) jokaturako finalean 22-15 galdu baitzuen Ruben Belokiren kontra.

Halere, partidua hasi aitzinetik jende gehienak uste baino lan gehiago eman zizkion Inaxiok historiako txapel-dun gazteena denari eta 15-12 irabazten egon zen. Partiduaren azken zatian, ordea, jo eta jo aritu zen burlatarra eta Errandonea hamabortzgarren tantu horretan gelditu zen.

## Inaxio triste

Inaxiok adierazi zuenez, "partidua nahiko ona izan da, emozioa izan du eta 15-



Errandoneak partidu polita jokatu bazuen ere, ezin izan zuen Beloki burlatarra gainditi

Argazkia: EGIN

12 aitzinetik paratu naizenean menpean izan dut Beloki". Errandonea gehien amorratu zuena, Belokik berak aukeraturako pilota batekin

irabaztea izan zen. "Hor egon da partidua-ren giltza, berakpilota gozatzenean, nik berriz, ez".

Kontrarioari buruz zera erran zuen: "Beloki

pilotari haundia da, borts tantotan berdin berdin uzten ahal dizu, baina irabazi ere egingen ahal zaio. 20 urte bertzerik ez izateko maila ikaragarria era-

## Berako II. mendi itzulia arrakastatsua

Hirurehun bat mendizalek parte hartu zuten maiatzaren 21ean burututako Berako II. Itzulian. Horietatik gehienak lortu zuten 30 kilometroko ibilbidea bukatzea. Horretarako laguntzaile ona izan zuten eguraldi eguzkitsua eta Agerra mendi taldekoekin dako antolaketa bikaina. Mendizale guztiak pozik zeuden ibilaldian zehar ikusitako ingurunearekin.



## Nafarroako Jolas kiroletako xake finalak Lesakan burutu ziren maiatzaren 20 eta 21ean

Nafarroako Jolas kiroletako xake txapelketaren finalak maiatzaren 20 eta 21ean burutu ziren Lesakan. Eskolarteko txapelketa honen finalean 55 xake jokalarik parte hartu zuten, eta beraien batera etorri ziren delegatuak kontuan hartuz, 79 lagun hurbildu ziren Lesakara aste-buru horretan.

### Sailkapena honela gelditu zen: Infantilak taldeka:

- 1.- Iruñeko Paz de Zigan-da ikastetxea.
- 2.- Atarrabiako San Juan ikastetxea.



### 3.- Iruñeko Casalanx ikastetxea.

#### Infantilak (mutilak)

- 1.- Miguel Muñoz.
- 2.- Miguel Navarro.
- 3.- Gonzalo Monbiela.

#### Kadete (mutilak)

- 1.- Carlos Perez.
- 2.- Roberto Monje.
- 3.- Juan Pablo Alegre.

#### Kadete (neskak)

- 1.- Esther Padilla.
- 2.- Oihana Gonzalez.
- 3.- Nerea Mauleon.

Ekitaldia Beti Gaztek antolatu zuen eta partehartzaileak gustora gelditu omen ziren eskainitako harrerarekin.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



### Inaxio Errandonea Alkaiagako pilotaria.

Ez zuen finala irabazterik izan, baina pilotari bikaina dela erakusten ari da behin eta berriz. Urte batean, jokaturako lau txapelketen final guztietan egon da eta horrek meritua handia du. Hurrengoan izanen da.

### Mendi itzulietara

ongi prestatu gabe joaki direnak.

Komenigarria izaten da honelako itzulietan, nahiz eta sobera gogorrik ez izan, ongi prestatzea. C'netakoak behinpein mendirako egokiak izan behar dute. Baztango itzulira-ko aholkua jarraitu.



# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BESTAK

### BERROETA

► **Ekainaren 2tik 5era.** Ikus hehetasunak 21. orrialdean.

### TRINIDADE EGUNA

► **Ekainaren 11n.** Ikus hehetasunak 16. orrialdean.

### BERA

► **Ekainaren 9tik 11ra.** Ikus hehetasunak 9. orrialdean.

### DONEZTEBE

#### ► Ekainaren 3an.

Familia  
Orientabiderako eta Sexu Heziketarako Zentrua Elizondon martxan jarri dutela ospatzeko, besta bat ospatuko da arratsaldeko 6etatik aitzinera Doneztebeko Jubilatuen ostatuan. Hitzaldia, trikitilariak, kantaldia eta berendua.

### ELIZONDO

#### ► Ekainaren 4an.

Baztan Ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko, ikasturte bukaerako bazkaria izanen da Parkean. Parkean. Aitzinetik, meza, dantzak plazan, Balleko Etxeak ikastolako ordezkariak eskainitako harrera eta karrikapasa ikastolaraino. Bazkal ondotik gaiteroak eta dantzaldia.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### Maruri pastela



Jabier GARCIA  
'Koxkonta'  
Jatetxekoa  
•LESACA•

#### Osagaiak

• Maruri kilo bat • Kilo erdi esnegain • 100 gr. azukre • 2 jelatina xafla •

#### Prestatzeko manera

Jelatina xaflak urarekin berazten jarriko ditugu, eta bitartean maruriak hehetuko ditugu. Jelatinek beraztu direnean, es-

ne bero pixka batean urtuko ditugu, eta nahaski horretara botako ditugu xehe-xehe egin ditugun maruriak ere.

Segidan esnegaina altxatuko dugu azukre pixka batekin nahasiz, eta gero, maruriak gehitu ondotik, ontzi batera botako dugu egin dugun nahaski osoa. Behin ontzian dugula, hozkai-

luan sartuko dugu bizpahiru orduz. Serbitzerakoan, ontzitik atera eta andramasusta saltsarekin apainduko dugu. On egin!

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 5.500 pzta.
- **Zerri gizona** (95-100): 190 pzta/kilo
- **Zerramak:** 120-130 pzt./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
  - **Idixkoak:** Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 570 |
| 1.koa ..... | 540 |
| 2.koa ..... | 500 |

- **Urruxak:** Pzta./kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 580 |
| 1.koa ..... | 550 |
| 2.koa ..... | 510 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):
  - **Nabarrak:** urruxak 22.000 eta idixkoak 33.000 Pzta.
  - **Mestizoak:** urruxak 35.000 eta idixkoak 50.000 Pzta.
  - **Behi zaharrak:**
  - Behi nabar gizona: 420 Pzta./Kg. Kanal.
  - Behi gorri ona: 480 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- **Bertako sagarrondoak** 950.
- **Udareondoak** 950 pzta.
- **Gereziondoak** 1.050 pzta.
- **Aranondoak** 1.050 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- **Muxika** 870 pzta.
- **Piper txorizero** zientoa 800.
- **Piper morro** zientoa 800.
- **Piperminak** zientoa 600.



## KATTU OSTATUA JATETXEA

MATXINBELTZENA

LESACA



Arretxea, 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESACA

## ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN

Tfnoa: 45 04 91



### BERTSO AFARIA

#### ETXALAR

##### ► Ekainaren 2an

ortzirala, Herriko Ostatuan, Xabier Silveira eta Jon Maia. Izena emateko deitu 635290 telefonora.

### KONTZERTUAK

#### DONEZTEBE

##### ► Ekainaren 4ean

igandea, arratseko 8etan, Ekaitza tabernan, Anje Duhalde.

### TRIKITILARIAK

#### DONEZTEBE

##### ► Ekainaren 18an

igandea, Nafarroako II. trikitilari txapelketa-ko kanporaketa Bordatxo dantzalekuan.

### GUARDIAKO BOTIKAK

##### ► Maiatzaren 29tik ekainaren 4ra

Bera, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.


##### ► Ekainaren 5tik

11ra Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

##### ► Ekainaren 12tik

18ra Arantza, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

## Gaztetxoan istiluak beren gorputzeko itxura dela eta



Anorexia duenak bere burua beti lodi eta traketsa ikusten du, eta hezur hutsean egonik ere, ez du behar bezala jaten, libragarriak hartzen ditu, goitikoak eragin...

nekoen artean erabiltzen diren pentsamoldeak.

Gaur egun, neska gazte askoren artean batez ere, gorputz mehe eta liraina edukitzea gauza garrantzitsua kontsideratzen da, eta gainera, gehienak ez daude gustora daukatenekin; hiritik bi daukaten pisuarekin, eta erdiak daukaten itxurarekin.

*Gaur egun, neska gazte askoren artean batez ere, gorputz mehe eta liraina edukitzea gauza garrantzitsua kontsideratzen da.*

### ATSEKABEA

Gustora ez egoteak atsekabea sortzen du, eta orduan, beren burua estimatzeko bide bakarra kiloak galtzea dela pentsatzen dute. Ez jatea erabakitzen dute, edo jateko ohitura txarrak hartu. Ahuleria sortzen denean, osasuna arrisku handian jartzen dute. Gaitz honi anorexia deitzen zaio. Nekea, hase-reak, txorabioak, hilekoa desagertzea, depresioak eta abar sufritzen dituzte. Holakoetan, beharrezkoa da medikuen eskuetan jartztea.

JOXE JABIER ETXEBERRIA  
MEDIKUA (GOIZUETA)

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.  
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.  
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40  
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitopanak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



### ETXEBIZITZAK

**BERA.** Eztegara pasealekuan 95m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Badu igongailua. ☎ 637184.

**LEGASA.** Etxea baratzearekin salgai. ☎ 450652.

**BAZTAN.** Pisu edo base-ritxo baten bila nabil, alokatzeko. ☎ 451746.

**Etxe edo baserria** alokatu edo erosiko nuke ☎ 450326.

**BERA.** Pisua salgai herriaren erdi aldean. ☎ 631035.

### DENETARIK

**Belarra** igotzeko makina elektrikoa salduko nuke. ☎ 450998. Goizetan 7etatik 8etara eta arratsaldetan 7,30etatik 8,30etara.

**Kartelak,** Buzoiratzeko paperak, Bisita txartelak, Faktura Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188.

**Garbigailua eta hozkailua** salgai, egoera onean, gutxi erabiliak. ☎ 631182.

**'Ormigonera** amasadora' ia berria, egoera onean dagoena saldu edo alokatzen dut. ☎ 393111 (arratsetan).

**Su-egurra,** txikitua, saltzen dut. ☎ 890026 (Otxagabia).

**Bi bizikleta,** 'Motorica' markakoak, neskenak, paseorakoak, salgai. ☎ 510498.

**Senar-emazte** logela, oso-

osorik salgai. ☎ 630595.

**Zeramika** lantzeko esku-ko tornea erosiko nuke. ☎ 450769.

### AZIENDAK

**Behor** dotorea eta lanean ongi dakiena, bere umearekin salgai. ☎ 634074.

**Pekines** arrazako zazpi zakurkume salgai, bi hila-betekoak. ☎ 631218.

**Ardi zakurkumeak** salgai. ☎ 604624.

**Ardi bat,** buztan luzea eta belarrian txapa horia 15 zerbakiarekin, Frain inguruan galdu zaigu. Ikusi bazu deitu ☎ 627618ra.

**Hameka hilabeteko** asto arra salgai. ☎ 514168 Goizueta, ilunabarretan.

### IBILGAILUAK

**Nissan Patrol** salgai, lau zilindrokoa eta lau urtekoa, ongi zaindua. ☎ 637050.

**Lada-Niva** 1.6 autoa salgai. Hiru urte eta 26.000 Km. ☎ 581210.

**R-18 diesela** salgai. ☎ 510167.

**Citroen CX** Turbo-diesela salgai. Arras prezio onean. ☎ 627642. Arratsetan.

**Volkswagen Corrado,** 16 balbulakoa salgai. Lau urte, NA-AC eta 37.000 km. ☎ (943) 643121 (arratseko 9etatik aurrera).

**Ibilgailuak** salgai: Land Rover arina (NA-S), BX GTI (NA-V), C15 Diesela (NA-U) eta R-18 Diesela (NA-M). ☎ 450286 (Pello).

**Okasioa.** Peugeot 405, 16 balbula eta extra askorekin, NA-AH matrikuladuna salgai. ☎ (943) 216852 edo 219018 (goizeko 8etatik 1ak arte)

### LANA

**Irakasle** tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

### AGURRAK

**Doneztebeko** Josebari: badituz 3 edo 4 larunbata zutaz maitemindurik nagoela eta Herri Urratsen ikusi zintudanean ezin izan nuen lorik egin. Iruritako bestetan ikusiko gara. A.I. ren partez muxu haundi bat.

**Urdazubiko** Edurne Maskotena: Zurekin gurutzatzen naizelarik zoratuta uzten nauzu. Oso polita eta maja zara. Espero dut laister ikustea. Baztango mutil baten partez.

**Baztango** Krispinentzat: nere bizitzako gauzarik onena zara. Mila esker bes-

te aukera bat emateagatik. A-ren partez.

**Zorionak** Asier Azurmendiri (ekainak 1) bere 10. urtebetetzean ataxi-amatxi eta osaba Angelen partetik.

**Leitzako** Joseba Zabale-tari, oso ona zaude. Leitzako neska baten partez.

**Zorionak** Imanol Gaztelumendiri bere emaztearen partetik. Egun on bat pasa ekainaren 19an eta besarkada haundi bat.

**Zorionak** Unai Gomez-i bere urtebetetzean (ekainak 3) ataxi-amatxi eta osaba Angelen partetik.

**San Fco. Jabier** Eskolako Josetxo eta Pellori: futbolari arrunt onak direla eta eskolako bi neska aunitz maite ditugula.

**Berako** Ainhoa eta Vanessari: Zer gertatzen zaizue? Haserre zaudete? Berako bi nesken partez. Erantzuna espero dugu.

**Berako** Idoia E. rentzat: Zorionak zure 15. urtebetetzean ekainaren 3an. Berako zure lagunaren partez.

**Laxarito:** Zorionak eta musu asko zure lagunaren partez. Oso haserre gaude ospatu ez genuelako. G.E.P.A.M.

**Erratzuko** Ainhoa B.: Maite

zaitut baina zuk ez dakizu. Oronozko N.B. en partez.

**Arizkongo** Idoia, Ankeles eta Maiteri. Zuekin hitzegiteko gogoak ditugu. Ea noiz ateratzen zareten. Badakigu orain azerketetan zaudetela eta. Espero dugu Doneztebeko bestetan elkar ikustea. Mixu berro bat zuek dakizki: uenen partez. G.H.X.

**Z-20-Rri:** zuk ere ongi dantzatzen duzulako nago. Beraz, ea Doneztebeko bestetan elkarrekin dantza egiten dugun. Lesakako M.

**Berako** Miriam B. ea Ekiñe L.ri: Oso onak zaudete. Gora bonboiak.

**Doneztebeko** Goetti I.ri: Herri Urratsen ikusi zintudanetik ezin zaitu buruti kendu. Zure begi berdeek maitemindu nintuten. Elizondoko mutil baen partez.

**Doneztebeko** Josu Urreagari: zutaz maitemindurik nago. Zue gortzeko gihar guzak liluratzten naute. Espero dut heldu den larunbatan zurekin hitzegitea. Sadiasko neska baten partez.



**HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK**

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI  
Tfnoa eta Faxa: 59.2179

**PIKABEA**  
*pinturak*  
Lehen Molinero  
izandakoak

**Etxe barneko hezetan eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu**

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**



# UDABERRIKO KULTUR EGUNAK ETXALAR

**Ekainak 10, 11 eta 18**

## **Ekainak 10-11**

Eskola Zaharretan  
Herritarrek egindako  
eskulanen erakusketa.

I. Kamiseta Diseinu  
Lehiaketara  
aurkeztu diren lan guziak  
erakutsiko dira bertan.

## **Ekainak 11**

### **GASNA FERIA**

IV. Altxata Gasna Lehiaketa.

Egun osoan,  
gasnak eta bertako produktuak  
salgai egonen dira.

Horretaz gain, artisaуak,  
bertsolariak, trikitilariak,  
txalapartariak, herri-bazkaria...

Karrika animazioa  
Kukubiltxoren eskutik.

## **Ekainak 18**

### **HAURREN EGUNA**

Haurren eskulan erakusketa.

Ipuinen irakurketa eta  
oroigarrien banatzea.

Bazkaria, trikitixak eta  
Animazio Taldea.

Antolatzailea: **ALTXATA** Kultur Elkarte  
Laguntzailea: Etxalarko Udala eta Eskola


# Gasna Feria

EKAINAK

# Eguna

# 11

# ETXALAR



## **IV. ALTXATA GASNA LEHIAKETA**

**BERTAKO GASNA ETA  
PRODUKTUEN SALMENTA  
ARTISAUAK • BERTSOLARIAK  
TRIKITILARIAK • HERRI BAZKARIA**

Laguntzailea:



# GANI

NAFARROAKO

AURREZKI KUTXA



# Ez zaitetz larritu



## **ERRENTA eta ONDASUN AITORPENA 1994**

Gure Bulego guztietan dohaineko zerbitzua eskeintzen dizugu,  
azkartasun eta profesionaltasun haundienarekin.  
Aurrez deitu eta ordua emanen dizugu.

**Zure Errenta Aitorpena Kutxan egin ezazu.**

**GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**